


## EAEko hamar gaztetik zortzik administrazio publikoetatik babes txikia edo batere babesik jasotzen ez dutela uste dute


**Inolako babesik jasotzen ez dutela uste duten gazteen portzentajea nahikoa handitu da: 2010ean %20koa zen eta 2011n, %32koa.**

Jarraian datozen datuak [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) bere [46. Euskal Soziometroan](#), hain zuzen ere, 2011ko uztailari dagokiona, kaleratu ditu eta [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu. EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %15ek uste dute gazteriak babes publiko handia edo nahikoa jasotzen duela, %50en iritziz babes txikia jasotzen du eta %32k deritzote ez dutela batere babesik jasotzen. Datuok 2010eko iraileko [43. Soziometroan](#) jasotakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu administrazio publikoaren aldetik inolako babesik jasotzen ez dutela diotenen ehunekoa hamabi puntu igo dela.



EAEko gazteek 2011n dituzten arazorik nagusienak hauexek dira, beraien iritziz: lan-merkatuari lotutakoak (%58k aipatuta), arazo ekonomikoak (%21ek), etxebizitza (%21ek) eta hezkuntza (%13k).

Lanarekin, etxebizitzarekin eta hezkuntzarekin erlazioaturiko arazoak dezente gehiago aipatzen dituzte gazteek biztanleria orokorrak baino.



Gainera, arazo horiek izango duten bilakaerari dagokionez, gazteek duten pertzepzioa ez da baikorra. Gazteen erdiek (%49) uste dute etorkizunean lehenengo etxebizitza eskuratzeak okerrera egingo duela; %17k bakarrik uste dute hobera egingo duela. Langabeziaren aurreko babesari dagozkion datuak antzekoak dira: gazteen %47k uste dute okerrera egingo duela eta %17k soilik diote hobera egingo duela. Hezkuntza sistema publikoari dagokionez, iritzia zertxobait baikorragoa da: %30en ustez, hobera egingo du etorkizunean, %45en iritziz bere horretan jarraituko du eta %20k okerrera egingo duela uste dute.